

Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretua, zeinaren bidez ezartzen baitira oinarri arautzaileak eta deialdia udalei eta mankomunitateei dirulaguntzak emateko, batetik, klima-aldaketaren eta energia-trantsizioaren arloko jarduketak egin ditzaten, energia-aurrezpen eta -efizientziako planak eta neurriak bultzatuta, eta, bestetik, energia berriztagarriak sustatu eta ezar ditzaten.

Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se establecen las bases reguladoras y la convocatoria de la concesión de subvenciones a ayuntamientos y mancomunidades para actuaciones en materia de cambio climático y transición energética, con el fomento de planes y medidas de ahorro y de eficiencia energética, y la promoción e implantación de energías renovables.

ONURADUNAK PERSONAS BENEFICIARIAS	Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak/mankomunitateak Ayuntamientos/mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia
DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN JARDUKETAK ACTUACIONES SUBVENCIONABLES	Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzko planak eta azterlanak / Planes y estudios sobre cambio climático y transición energética. Baliabide berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak kogeneraziokoak/trigeneraziokoak / Instalaciones de aprovechamiento de recursos renovables y de cogeneración/ trigeneración Energia-aurrezpen eta -efizientziako jarduketak / Actuaciones de ahorro y eficiencia energética Ibilgailuak/Vehículos
AURREKONTU-ZUZKIDURA DOTACIÓN PRESUPUESTARIA	2.120.000 €
DIRULAGUNTZAK EMATEKO ARAUBIDEA REGIMEN DE CONCESION	Lehia-konkurrentzia





	Concurrencia competitiva
ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA PLAZO SOLICITUDES	BAOn argitaratu ondorengo egunetik 2024ko otsailaren 28ra arte (13:30ak arte) Desde el día siguiente a su publicación en el BOB hasta el 28 de febrero de 2024 (hasta las 13:30 horas).

Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak du ingurumen-politika zehaztu eta garatzeko eskumena, ingurumen-kalitate handiko lurraldea lortzeko. Politika hori printzipio hauetan oinarrituko da: jasangarritasuna, prebentzioa, erantzukizun kolektiboa, elkartasuna, gaitasuna eta subsidiarotasuna. Helburua da lortzea herritarren ongizatea eta garapen sozioekonomikoa, ingurumen-jasangarritasuna kontuan hartuta.

Zehazki, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak bere egitekoen artean du ingurumen-jasangarritasunaren, klima-alaketaren eta energia-trantsizioaren sustapenaren arloan politikak eta ekintzak bultzatzea, baita, bereziki, Lurralde Historikoko udalerriei bultzada eta laguntza ematea, haietan Tokiko 2030 Agendak ezar daitezen.

Programari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak 2023-2027 agintaldiko plana garatzen dihardu, «Bizkaia Denontzat» izenekoa, plan horren jarduketa-ardatzetako bat «Bizkaia berde» bat lortzea delarik; hau da, helburutzat du neutraltasun klimatikoa bilatzen duen Bizkaia, energiaren ikuspegitik efizienteagoa eta garbiagoa izango dena, bere ingurune naturala zaindu eta bere ekosistemen zerbitzuak modu jasangarrian erabiliko dituen, eta ekonomia zirkularraren aldeko apustua egingo duena, modu arduratsuan produzitzeko, kontsumitzeko eta bizitzeko.

Ingurumen-jasangarritasunaren arloan, eta testuinguru global batean, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda onartu zuen, arlo horretan mundu mailan jarduteko ardatza. Agenda horren zutabe nagusiak dira iraunkortasuna sustatzea, klimaren alde ekitea, ahultasunak eta

El Departamento de Medio Natural y Agricultura tiene la competencia para definir y desarrollar la política ambiental de Bizkaia, basada en los principios de sostenibilidad, prevención, responsabilidad colectiva, solidaridad, competencia y subsidiariedad, con el objetivo de lograr un territorio con una gran calidad medioambiental favoreciendo el bienestar de la ciudadanía y el desarrollo socioeconómico en clave de sostenibilidad ambiental.

En particular, la Dirección General de Medio Ambiente tiene entre sus funciones la promoción de políticas y acciones en materia de sostenibilidad ambiental, cambio climático e impulso a la transición energética, así como también, de manera específica, el impulso y apoyo a los municipios del Territorio Histórico de Bizkaia, en orden a la implantación en los mismos de las Agendas 2030 Locales.

En el aspecto programático, la Diputación Foral de Bizkaia está desarrollando el plan de mandato 2023-2027 denominado “Bizkaia Denontzat”, que tiene como uno de sus ejes de actuación lograr una “Bizkaia verde”, es decir, establece como objetivo una Bizkaia que busca la neutralidad climática, que sea más eficiente y limpia desde el punto de vista energético, que conserve su biodiversidad, proteja su medio natural y haga un uso sostenible de los servicios de sus ecosistemas, y que apueste por una economía circular, para poder producir, consumir y vivir de forma responsable.

En materia de sostenibilidad ambiental, y en un contexto global, en el año 2015 la Organización de las Naciones Unidas (ONU) aprobó la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible, eje de actuación en este campo a nivel mundial. Sus pilares fundamentales son el fomento de la sostenibilidad, la





desorekak murriztea eta planetan pobrezia errotik desagerraraztea. Haren garapen jasangarrirako 17 helburuen artean azpimarratzekoak dira, ingurumeneko gaitan, honako hauek: «energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa bermatzea guztiontzat», «kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea», «hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea» eta, azkenik, «neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko». Plangintza integratuko esparru honetan, Eusko Jaurlaritzak Euskadi Basque Country 2030 Agenda sortu zuen, 2018an.

Halaber, toki/eskualde mailan, Nazio Batuen zehaztapenak Tokiko 2030 Agendan jasotzen dira, tresna erabat praktikoa bera, eta hona nola ulertzen den haren helburua, hau da, garapena: herritarren bizi-kalitatea hobetzea, oreka gordez tokian tokiko ingurune naturalarekiko eta ahalmen ekonomikoarekiko, orain eta etorkizunean. Tokiko 2030 Agenda hori Tokiko 2030 Agenda Planaren eta energia- eta ingurumen-plangintzarako bestelako tresnen bitartez garatzen da. Tokiko 2030 Agendaren garapen-tresnen barruan sartutako proiektu eta jarduketan artean badira zenbait ekintza ingurumenaren arloan funtsezkoak diren esparruetan garatzen direnak, esaterako, klima-aldaketaren esparruan eta energiarenean.

Klima-aldaketaren aurkako borrokari dagokionez, nabarmendu behar da nazioartean badi-rela energia- eta klima-erronkari aurre egiteko hainbat akordio, lege-neurri eta plangintza, asmo handikoak.

Hala, Nazio Batuen eremuan, nabarmentzekoak dira Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren (KANBEK) barruan hartu diren konpromisoak. Horien artean aipagarriena da 2015eko Parisko Akordioa, EBK eta haren estatu kideek berretsia, Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernuarteko Taldearen (IPCC) aldizkako txostenen oinarri sendoaren gainean eraikia. Akordio horrek argi eta garbi ezartzen ditu klimaren arloan ezinbestez hartu beharreko zenbait konpromiso

acción por el clima, la disminución de las vulnerabilidades, las desigualdades y la erradicación de la pobreza en el planeta. Entre sus 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible, cabe significar en materia medioambiental “Asegurar el acceso a energías asequibles, fiables, sostenibles y modernas”, “Garantizar las pautas de consumo y de producción sostenibles”, “Conseguir que las ciudades y los asentamientos humanos sean resilientes y sostenibles” y, finalmente, “Tomar medidas urgentes para combatir el cambio climático y sus efectos”. En este marco de planificación integrada, el Gobierno Vasco dio luz a la Agenda Euskadi Basque Country 2030 en el año 2018.

Asimismo, y ya a nivel local/comarcal, las determinaciones de Naciones Unidas se plasman mediante la Agenda 2030 Local, que es una herramienta eminentemente práctica, cuyo objetivo es avanzar hacia el desarrollo sostenible, entendido como mejora de la calidad de vida de la ciudadanía, en equilibrio con el medio natural y con las capacidades económicas locales, ahora y en el futuro. Esta Agenda 2030 Local se desarrolla mediante el Plan de Agenda 2030 Local y otros instrumentos de planificación energéticos y ambientales. Dentro de los proyectos y actuaciones incluidas en los instrumentos de desarrollo de la Agenda 2030 Local, se encuentra la ejecución de actuaciones sobre sectores ambientales claves como el cambio climático y la energía

En lo que se refiere a la lucha contra el cambio climático, hay que destacar el extenso y ambicioso paquete de acuerdos, medidas legislativas y planificaciones a nivel internacional para hacer frente al reto energético y climático.

Así, en el ámbito de Naciones Unidas, destacan los compromisos que se han ido adquiriendo en el marco de la Convención Marco de Naciones Unidas sobre el Cambio Climático (CMNUCC), sobresaliendo sobre todos ellos el Acuerdo de París de 2015, ratificado por la UE y sus Estados miembros, sobre la sólida base de los informes periódicos del Grupo Intergubernamental de Expertos sobre el Cambio Climático (IPCC). Dicho acuerdo establece de manera inequívoca unos compromisos ineludibles en materia climática para todas las sociedades europeas,





Europako gizarte guztientzat, Bizkaikoa barne.

EBren beraren esparruan, Europako Itun Berdea 2019ko abenduan onartu zen, eta Europar Batasunaren ingurumen-eraldaketarako eta energia-trantsiziorako tresna bihurtu zen. Era berean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/1119 (EB) Erregelamendua onartu da, 2021eko ekainaren 30ekoa, zeinaren bidez ezartzen baita klima-neutraltasuna lortzeko esparrua eta aldatzen baitira 401/2009 (EE) eta 2018/1999 (EB) erregelamenduak («Klimari buruzko Europako legeria»). Horrek guztiak legegintza-corpus bat eratzen du, EBn 2050erako klima-neutraltasunaren helburua ezarri eta definitzen duena, eta klima-aldaketaren inpaktuetara egokitze ahaleginetan aurrera egiteko esparru bat ematen duena. Esparru horren arabera, estatu kide guztiek abian jarri behar dituzte egokitze-estrategiak eta -planak.

Azkenik, Estatuan, maiatzaren 20ko 7/2021 Legea onartu da, Klima Aldaketarena eta Trantsizio Energetikoarena, zeinak, besteak beste, Parisko Akordioaren eta Europako Itun Berdearen konpromisoak jasotzen dituen. Horrela, bada, lege horren xedea da ekonomiaren deskarbonizazioa erraztea, haren eredu zirkular baterako trantsizioa ziurtatzea, baliabideen erabilera arrazoizkoa eta solidarioa bermatuta, eta klima-aldaketaren inpaktuetara egokitzea eta enplegu egokia sortzen duen eta desberdintasunak murrizten laguntzen duen garapen jasangarriko eredu baten ezarpena sustatzea.

Bestalde, 2015ean, Eusko Jaurlaritzak 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategia onartu zuen; bertan, toki-erakundeekin eta enargiarekin lotutako alderdiak azpimarratzen dira, eta haiek lagunduko dute Klimari buruzko Parisko Akordioan (2015) erabaki ziren helburu globalak betetzen.

Energia-trantsizioari dagokionez, kontuan hartu behar da urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauak, energia-efizientziari buruzkoak, eta 2010/31/EB Zuzentarauak, eraikinen energia-efizientziari buruzkoak —biak ere 2018/844 Zuzentarauak aldatuak—, adierazten dutenaren arabera, estatu kideek udalerrriak eta erakunde publikoak animatu

incluyendo la bizkaina.

Ya en el marco de la propia UE, el Pacto Verde Europeo fue aprobado en diciembre de 2019, constituyéndose en el instrumento de transformación medioambiental y transición energética de la Unión Europea. Asimismo, se ha aprobado el Reglamento (UE) 2021/1119 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 30 de junio de 2021, por el que se establece el marco para lograr la neutralidad climática y se modifican los Reglamentos (CE) nº 401/2009 y (UE) 2018/1999 (“Legislación europea sobre el clima”). Todo ello configura un corpus legislativo que establece y define el objetivo de neutralidad climática en la UE a 2050 y proporciona un marco para avanzar en los esfuerzos de adaptación a los impactos del cambio climático, por el cual, todos los Estados miembros deben poner en marcha estrategias y planes de adaptación

Por último, a nivel estatal se ha aprobado la Ley 7/2021, de 20 de mayo, de Cambio Climático y Transición Energética, que entre otros recoge los compromisos del Acuerdo de París y del Pacto Verde Europeo. Por tanto, esta ley tiene como objeto facilitar la descarbonización de la economía y su transición a un modelo circular, de modo que se garantice el uso racional y solidario de los recursos; y promover la adaptación a los impactos del cambio climático y la implantación de un modelo de desarrollo sostenible que genere empleo decente y contribuya a la reducción de las desigualdades.

Por su parte, el Gobierno Vasco aprobó en 2015 la Estrategia de Cambio Climático del País Vasco KLIMA 2050, destacándose los aspectos relacionados con las administraciones locales y la energía, que contribuirán al avance de las metas globales que se acordaron en el Acuerdo sobre el Clima de París del año 2015.

En cuanto a la transición energética, debe tenerse en cuenta que la Directiva 2012/27/UE, de 25 de octubre, relativa a la eficiencia energética, y la Directiva 2010/31/UE relativa a la eficiencia energética de los edificios, modificadas ambas por la Directiva 2018/844, señalan que los Estados miembros deben animar a los municipios y otros





behar dituztela helburu argiak dituzten energia-efizientziari buruzko plan jasangarriak eta integratuak ezartzera. Hura eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriari buruzko abenduaren 9ko 226/2014 Dekretuaren bidez zehaztu zen, besteak beste.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 2019ko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak euskal administrazio publikoetan eta sektore pribatuan jasangarritasun energetikoaren arau-oinarriak ezartzen ditu, eta batzuek eta besteek zer eginbehar eta betebehar dituzten antolatzen du. Batez ere, energia-aurrezpen eta -efizientziako neurriak bultzatzera bideratuko dira jarduketak, bai eta energia berriztagarriak sustatzera eta ezartzera ere. Ildo horretan, II. kapituluak administrazio publikoek bete behar dituzten helburu eta ekintza orokorrak jasotzen ditu. Era berean, 14.3 artikulua ezartzen du lurralde historikoetako eta udalerrietako administrazioek zeinek bere energia-jarduketan planak onartu behar dituztela.

4/2019 Legea Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko azaroaren 10eko 254/2020 Dekretuaren bidez garatu zen, eta, bertan, gehiago zehazten dira legean jasotako alderdi batzuk.

Aurreko guztiaren ondorio gisa, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 7.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde historikoetako foru-organismoek dagokie azaroaren 25eko 27/1983 Legean aitortutako eskumenak baliatzea, bai eta 10/2021 Legeak berak eta autonomia-erkidegoko gainerako ingurumen-arauek esleitutakoak ere, Europar Batasunean eta Euskal Autonomia Erkidegoan diseinatutako ingurumen-estrategiaren esparruan. Aipatzekoa da, halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak udalerriei laguntza emateko eta haiekin lankidetzan jarduteko betebeharrak duela, arlo juridikoan, ekonomikoan eta teknikoan, hala ezarrita baitago toki-araubideari buruzko legerian. Azkenik, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren Erregelamendu Organikoak, maiatzaren 31ko 79/2022 Foru Dekretuaren bidez onartuak, esleitutako eskumenen artean sartzen du, bereziki 1.

organismos públicos a adoptar planes de eficiencia energética sostenibles e integrados con objetivos claros. La misma se concretó, entre otros, mediante el Decreto 226/2014, de 9 de diciembre, de certificación de la eficiencia energética de los edificios del Gobierno Vasco.

Por su parte, la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca, establece los pilares normativos de la sostenibilidad energética en los ámbitos de las administraciones públicas vascas y del sector privado, articulando los deberes y obligaciones básicos que unas y otras deben cumplir. Las acciones se orientan fundamentalmente al impulso de medidas de ahorro y eficiencia energética, y de promoción e implantación de energías renovables. En tal sentido, el capítulo II contiene los objetivos y acciones generales que deben acometer las administraciones públicas. Asimismo, el artículo 14.3 establece que las administraciones de los territorios históricos y de los municipios deben aprobar sus respectivos planes de actuación energética.

La ley 4/2019 se desarrolló mediante el Decreto 254/2020, de 10 de noviembre, sobre Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca, que da una mayor concreción a algunos de los aspectos contemplados por la misma.

Como corolario de todo lo anterior, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 7.2 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, corresponden a los órganos forales de los Territorios Históricos ejercer las competencias reconocidas en la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, las atribuidas por dicha Ley 10/2021, y por el resto de normativa autonómica medioambiental, en el marco de la estrategia ambiental diseñada en la Unión Europea y la Comunidad Autónoma Vasca. Cabe citar asimismo el deber de la Diputación Foral de Bizkaia de asistencia y cooperación jurídica, económica y técnica a los municipios, establecido en la legislación de régimen local. En último término, el Reglamento Orgánico del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural, aprobado por Decreto Foral 79/2022, de 31 de mayo, incluye en el elenco de competencias atribuidas, en particular en sus artículos 1 y 23, la coordinación de las





eta 23. artikuluetan, ingurumen-jasangarritasunaren arloko jarduketan koordinazioa, jasangarritasun-sareen eta -programen eta 2030 Agendaren esparruan.

Bizkaiko Foru Aldundiak, beraz, bere gain hartzen du lurralde historikoko trantsizio energetikoan, klimatikoan eta ekologikoan aurrera egiteko zeregina, tokiko erakundeei bide horretan lagunduz eta haiekin batera jardunez, eta dirulaguntzen lerro hori funtsezko tresna da horretarako. Hala, dirulaguntzen programa honen lehentasunezko helburua da energia-trantsizioaren eta klima-aldaketaren arloko jarduketak sustatzea, hala nola, planak egitea, energia berriztagarriak aprobetxatzea eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udal eta mankomunitateetako instalazio, eraikin publiko eta ibilgailuetan energia-kontsumoaren aurrezpena eta efizientzia areagotzea.

Gainera, foru-dekretu hau prestatzeko orduan kontuan hartu da genero berdintasunerako Plana genero-desberdintasunak desagerrarazteko eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko, eta lehentasunak ezarri dira laguntzak generoaren arabera emateko.

Foru-dekretu honetan, genero-ikuspegia jasotzen da, bai hura prestatzeko orduan bai haren aplikazioan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritakoarekin bat. Gainera, kontuan hartu da 4/2018 Foru Arauan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa, zeinaren bidez ezartzen diren generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak. Ildo horretan, dekretu honen izapidetzean foru-arau horren 25. artikuluan eta foru-dekretu horren 2. artikuluan aipatzen den txostena sartu da, hau da, «Generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena».

Foru-dekretu hau prestatzeko orduan, kontuan hartu da 2019ko maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan

actuaciones en materia de sostenibilidad ambiental en el marco de las redes y programas de sostenibilidad y de la Agenda 2030.

La Diputación Foral de Bizkaia, por tanto, asume la tarea de avanzar en la transición energética, climática y ecológica del territorio histórico, ayudando y acompañando a los entes locales en este camino, siendo esta línea de subvenciones una herramienta clave para ello. Así, el objetivo prioritario de este programa de subvenciones es el de promover actuaciones en materia de transición energética y cambio climático, que incluyen la elaboración de planes, el aprovechamiento de las energías renovables y el aumento del ahorro y la eficiencia en el consumo de energía de las distintas instalaciones, edificios públicos y parque móvil de los ayuntamientos y mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia.

Asimismo, en la elaboración de este Decreto Foral se ha tenido en cuenta el Plan de Igualdad de género para la eliminación de desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres estableciéndose prioridades para la concesión de las ayudas en función del género

El presente Decreto Foral incorpora la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en la Ley 4/2005, de 18 de febrero y en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en la Norma Foral 4/2018 y el Decreto Foral 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las directrices y las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género. En este sentido, en su tramitación se incorpora el "Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género" al que hace referencia al artículo 25 de la Norma Foral y el artículo 2 del citado Decreto Foral.

En la elaboración del presente Decreto Foral se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de





hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

Foru-dekretu honek betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak aurreikusten baitira irailaren 1eko 39/2015 Legean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan, eta 3. artikuluan jasotzen baititu Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuak, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duenak.

Era berean, foru-dekretu hau egin eta izapidetzean, Bizkaiko Foru Aldundiaren 87/2021 Foru Dekretuan ezarritako izapideak bete dira: generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena, kontrol ekonomikoa eta dagozkion txosten juridikoak eman dira.

Xedapen hau onesteko eskumenari dagokionez, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.1.4 eta 17.2 artikuluetan xedatutakoaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokio eskumen hori.

Hori dela bide, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko foru-diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra.- Klima-aldaketaren eta energia-trantsizioaren arloko jarduketetarako laguntzen oinarriak eta deialdia onartzea.

Oinarri arautzaileak onartzen dira Bizkaiko Lurralde Historikoko udalei eta mankomunitateei dirulaguntzak emateko, batetik, klima-aldaketaren eta energia-trantsizioaren jarduketak egin ditzaten, energia-aurrezpen eta -efizientziako planak eta neurriak bultzatuta, eta, bestetik, energia berriagarriak sustatu eta ezar ditzaten, eta 2024ko ekitaldirako deialdia egiten da. Jarraian jasotzen da

actuación de la Diputación de Bizkaia.

El presente Decreto Foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y recogidos en el artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021 de 15 de junio por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Igualmente, en la elaboración y tramitación del presente Decreto Foral se han seguido los trámites marcados en el citado Decreto Foral 87/2021 de la Diputación Foral de Bizkaia, emitiéndose los preceptivos informes de Evaluación Previa de Impacto de Género, de Control Económico y jurídicos correspondientes.

En relación con la competencia del órgano para la aprobación de la disposición, a tenor de los artículos 17. 1.º 4 y 17. 2.º de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, ésta corresponde al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia

En su virtud, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Medio Natural y Agricultura, y previa deliberación del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia.

DISPONGO

Artículo Único.- Aprobación de las bases y convocatoria de ayudas para actuaciones en materia de cambio climático y transición energética.

Se aprueban las bases reguladoras de la concesión de subvenciones a ayuntamientos y mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia para actuaciones en materia de cambio climático y transición energética, con el fomento de planes y medidas de ahorro y de eficiencia energética, y la promoción e implantación de energías renovables, y la convocatoria para el ejercicio 2024, cuyo texto se





oinarrien eta deialdiaren testua.

incluye a continuación.

AZKEN XEDAPENAK

DISPOSICIONES FINALES

Azken xedapenetako lehena.- Arau-garapena.

Baimena ematen zaio Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko foru-diputatuari foru-dekretu honetan ezarritakoak garatu, gauzatu eta aplikatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak eman ditzan.

Disposición final primera. - Desarrollo normativo.

Se autoriza a la diputada foral de Medio Natural y Agricultura para dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente Decreto Foral.

Azken xedapenetako bigarrena.- Indarrean jartzea

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru-dekretu hau.

Disposición final segunda. - Entrada en vigor

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Ahaldun nagusia / Diputada general

Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko foru-diputatua / Diputada foral de Medio Natural y Agricultura





UDALEI ETA MANKOMUNITATEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK ETA 2024. URTERAKO DEIALDIA, BATETIK, KLIMA-ALDAKETAREN ETA ENERGIA-TRANSIZIOAREN ARLOKO JARDUKETAK EGIN DITZATEN, ENERGIA-AURREZPEN ETA -EFIZIENTZIAKO PLANAK ETA NEURRIAK BULTZATUTA, ETA, BESTETIK, ENERGIA BERRIZTAGARRIAK SUSTATU ETA EZAR DITZATEN.

BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA PARA EL EJERCICIO 2024 DE SUBVENCIONES DESTINADAS A AYUNTAMIENTOS Y MANCOMUNIDADES PARA LA REALIZACIÓN DE ACTUACIONES EN MATERIA DE CAMBIO CLIMÁTICO Y TRANSICIÓN ENERGÉTICA, CON EL FOMENTO DE PLANES Y MEDIDAS DE AHORRO Y DE EFICIENCIA ENERGÉTICA, Y LA PROMOCIÓN E IMPLANTACIÓN DE ENERGÍAS RENOVABLES.

AURKIBIDEA

INDICE

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. Dirulaguntzaren xedea.
2. Diruz lagun daitezkeen jarduketak eta gastuak
3. Kanpo geratzen diren jarduketak
4. Erakunde onuradunak (baldintza orokorrak eta espezifikokoak)
5. Elkarreragingarritasuna.
6. Datu pertsonalen babesa
7. Aplikatu beharreko araudia

II. KAPITULUA. XEDAPEN ESPEZIFIKOAK

8. Dirulaguntzak emateko prozedura
9. Dirulaguntzak emateko irizpideak
10. Ebazpena. Prozedura inbuitzeko eskumena duen organoa
11. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

CAPITULO I. DISPOSICIONES GENERALES

1. Objeto de la subvención
2. Actuaciones y gastos subvencionables
3. Actuaciones excluidas
4. Entidades beneficiarias (requisitos generales y específicos)
5. Interoperabilidad
6. Protección de datos de carácter personal
7. Normativa aplicable

CAPITULO II. DISPOSICIONES ESPECÍFICAS

8. Procedimiento de concesión
9. Criterios de concesión
10. Resolución. Órgano competente para la instrucción del procedimiento
11. Compatibilidad con otras subvenciones





12. Dirulaguntza aldatzea	12. Modificación de la subvención
13. Diruz landutako jarduera gauzatzeko epea	13. Plazo de ejecución de la actividad subvencionada
14. Emandako dirulaguntzari uko egitea	14. Renuncia a la subvención concedida
15. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa	15. Cuantía y abono de la subvención concedida
16. Dirulaguntzaren erakunde onuradunaren betebeharrak	16. Obligaciones de la entidad beneficiaria de la subvención
17. Dirulaguntza erakunde onuradunak berak borondatez itzultzea	17. Devolución voluntaria a iniciativa de la beneficiaria de la subvención
18. Dirulaguntzaren justifikazioa. Epeak	18. Justificación de la subvención. Plazos
19. Baldintzak ez-betetzea eta dirulaguntza itzultzea	19. Incumplimiento y Reintegro
20. Arau-haustea eta zehapenak	20. Infracciones y sanciones
21. Emandako dirulaguntzen publikotasuna	21. Publicidad de las subvenciones concedidas

III.KAPITULUA. DEIALDIA

- 22. Eskabideak
- 23. Eskabideak aurkezteko epea eta lekua
- 24. Nahitaez aurkeztu beharreko dokumentazioa
- 25. Eskabideak zuzentzea edo hobetzea
- 26. Aurrekontu-izendapena

CAPITULO III. CONVOCATORIA

- 22. Solicitudes
- 23. Plazo y lugar de presentación
- 24. Documentación necesaria a aportar
- 25. Subsanación o mejora de la solicitud
- 26. Consignación presupuestaria





I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. oinarria. *Dirulaguntzaren xedea.*

Foru-dekretu honen xedea da Bizkaiko Lurralde Historikoko udalei eta mankomunitateei dirulaguntzak lehia-konkurrentziaren araubidean emateko oinarriak eta deialdia ezartzea, klima-aldaketaren eta energia-trantsizioaren arloko inbertsio-proiektuak egiteko, energia-aurrezpen eta -efizientziako neurrien ezarpena bultzatuta, energia berriztagarriak sustatu eta ezartzeko eta energiaren arloko azterlanak eta jarduketa-planak egiteko.

Dirulaguntzen programa honen babesean egiten diren proiektu guztiek genero-ikuspegia jaso behar dute, eta haietan ezin da bereizkeria dakarren osagirik egon —ez hizkuntzaren erabileran, ez irudietan—, ezta jarduera edo ekintza baztertzailek ere.

2. oinarria. *Diruz lagun daitezkeen jarduketak eta gastuak.*

Foru-dekretu honen esparruan, jarduketa hauek izango dira dirulaguntzaren xede:

Laguntza-lerro bakoitzak dirulaguntzen guztizko muga du, eta, beraz, ez da muga hori gaindituko emango diren dirulaguntzen multzoan.

Eskabideak aztertu ondoren, lerro batean diruz lagundu beharreko zenbatekoa oinarri hauek xedatutakoa baino txikiagoa bada, soberakina beste linea batzuetako eskaerei erantzuteko erabili ahal izango da.

2.1.- Planak eta azterlanak egitea

Dirulaguntzen lerro horrek 120.000 euroko muga izango du guztira.

2.1.1.- Euskal Autonomia Erkidegoko jasagarritasun energetikoari buruzko araudian aurreikusitako planak.

Diruz lagunduko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Jasagarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean eta Euskal Autonomia

CAPITULO I: DISPOSICIONES GENERALES

Base 1. *Objeto de la subvención.*

Es objeto del presente Decreto Foral el establecimiento de las bases y la convocatoria para la concesión de subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, para los ayuntamientos y mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia, para la realización de proyectos de inversión en materia de cambio climático y transición energética, con el fomento de medidas de ahorro y de eficiencia energética, la promoción e implantación de energías renovables, así como estudios y planes de actuación energética.

Todos aquellos proyectos realizados al amparo de este programa de ayudas incorporarán la perspectiva de género, no contemplando elementos de discriminación en el uso del lenguaje y de la imagen, ni actividades o acciones discriminantes.

Base 2. *Actuaciones y gastos subvencionables.*

Las actuaciones objeto de subvención en el marco del presente Decreto Foral son las enumeradas a continuación.

Cada línea de ayuda tiene un límite subvencional total, de forma que no se rebasará ese límite en el conjunto de subvenciones que se otorgarán en cada una.

En el caso de que, analizadas las solicitudes, la cantidad a subvencionar total en una línea sea inferior a lo dispuesto en las presentes bases, el sobrante podrá ser utilizado para atender solicitudes de otras líneas.

2.1.- Formulación de planes y estudios

Esta línea subvencional tendrá un límite total de 120.000 euros.

2.1.1.- Planes previstos en la normativa de sostenibilidad energética de la Comunidad Autónoma Vasca.

Se subvencionarán la formulación de Planes de Actuación Energética previstos en la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de sostenibilidad energética de la





Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko azaroaren 10eko 254/2020 Dekretuan aurreikusitako energiaren arloko jarduketa-planak egitea.

2.1.2.- Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzko beste plan batzuk

Era berean, diruz lagundu ahal izango da klima-aldaketari eta energiari buruzko udal edo eskualde mailako planak egitea, hala nola, honako hauek:

- Klimaren eta Energia Jasangarriaren Aldeko Ekintza Plana
- Energia Jasangarrirako Ekintza Plana
- Udalaren Energia Plana
- Klima-aldaketari eta/edo energiari buruzko beste plan batzuk

2.1.3.- Azterlanak

Exekuzio-proiektuak ekarriko dituzten azterlan, diagnostiko, ebaluazio eta analisi energetikoak egiteko laguntzak emango dira.

2.2.- Baliabide berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak eta kogeneraziokoak/trigeneraziokoak.

Dirulaguntzen lerro horrek 700.000 euroko muga izango du guztira.

2.2.1- Baliabide berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak.

Neurri honen barruan sartzen diren jarduketak izango dira iturri berriztagarrietatik datozen baliabideak aprobetxatzearen ondorioz eraikin eta instalazio publikoetan kanpoko energiaren kontsumoa murriztea lortzen dutenak:

Produkzio termikoko sistemen instalazioak:

- Biomasa-galdaren instalazioa.
- Instalazio geotermikoa.
- Aerotermia (aire-aire teknologiak izan ezik).
- Hidrotermia
- Eguzki-instalazio termikoa.

Comunidad Autónoma Vasca y en el Decreto 254/2020, de 10 de noviembre, sobre sostenibilidad energética de la Comunidad Autónoma Vasca.

2.1.2.- Otros planes sobre cambio climático y transición energética

De igual modo, serán subvencionables la realización de planes relativos a cambio climático y energía del ámbito municipal o comarcal, como los siguientes:

- Plan de Acción por el Clima y la Energía Sostenible
- Plan de Acción de Energía Sostenible
- Plan energético municipal
- Otros planes de cambio climático y/o energía

2.1.3.- Estudios

Se concederán ayudas para la elaboración de estudios, diagnósticos, evaluaciones y análisis energéticos que den lugar a proyectos de ejecución.

2.2.- Instalaciones de aprovechamiento de recursos renovables y de cogeneración/ trigeneración.

Esta línea subvencional tendrá un límite total de 700.000 euros.

2.2.1- Instalaciones de aprovechamiento de recursos renovables

Las actuaciones consideradas dentro de esta medida serán aquellas que consigan una reducción en el consumo de energía externa en edificios e instalaciones públicas, a través del aprovechamiento de recursos provenientes de fuentes renovables:

Instalaciones de sistemas de producción térmica:

- Instalación de calderas de biomasa.
- Instalación geotérmica.
- Aerotermia (exceptuando las tecnologías aire-aire).
- Hidrotermia
- Instalación solar térmica.





Airea girotzeko eta/edo etxeko ur beroa produzitzeko egiten diren instalazio horiek uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduan (EITE) ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, baita aplikagarri zaien beste edozein araudi ere.

Elektrikoki eragindako bero-ponpen kasuan, 2,5etik gorako SPFa izan beharko dute. (urtaroko batez besteko errendimendua (SCOPdhw) 2,5 edo handiagoa)

Energia elektrikoa sortzeko instalazioak:

- Eguzki-instalazio fotovoltaikoak
- Instalazio eolikoak.
- Iturri berriztagarrietatik datozen beste instalazio batzuk.

2.2.2.- Kogenerazioko/trigenerazioko instalazioak.

Neurri honen barruan sartzen diren energiaren arloko jarduketak izango dira kogenerazioko eta/edo trigenerazioko instalazio bat ezartzea lortzen dutenak.

2.3.- Energia-aurrezpen eta -efizientziako jarduketak

Dirulaguntzen lerro horrek 1.200.000 euroko muga izango du guztira.

2.3.1.- Eraikin publikoen inguratzaile termikoaren gaineko jarduketak

Neurri honen barruan sartzen diren energiaren arloko jarduketak izango dira eraikin publikoetan energia elektrikoaren eta/edo erregaiaren kontsumoa murriztea lortzen dutenak, fatxadari, estalkiari edo eraikinaren egiturari zein inguratzaile termikoari eragiten dieten jarduketak bidez (leihoak aldatzea, isolamendu termikoak, eta abar).

2.3.2.- Airea girotzeko eta/edo etxeko ur beroa (EUB) produzitzeko instalazioak.

Neurri honen barruan sartzen diren energiaren arloko jarduketak izango dira berotzeko, hozteko eta/edo etxeko ur beroa produzitzeko instalazioak berritu edo ordeztu direnean energia elektrikoaren eta/edo erregaiaren kontsumoa

Estas instalaciones realizadas para climatización y/o agua caliente sanitaria, deberán cumplir con los requisitos establecidos en el Reglamento de Instalaciones Térmicas de los Edificios (RITE), aprobado por Real Decreto 1027/2007, de 20 de julio, así como cualquier otra normativa que les sea de aplicación.

En el caso de las bombas de calor accionadas eléctricamente deberán tener un SPF superior a 2,5. (rendimiento medio estacional (SCOPdhw) igual o superior a 2,5)

Instalaciones de generación de energía eléctrica:

- Instalaciones solares fotovoltaicas
- Instalaciones eólicas.
- Otras instalaciones provenientes de fuentes renovables.

2.2.2.- Instalaciones de cogeneración/ trigeneración.

Las actuaciones energéticas consideradas dentro de esta medida serán aquellas que consigan la implantación de una instalación de cogeneración y/o trigeneración.

2.3.- Actuaciones de ahorro y eficiencia energética

Esta línea subvencional tendrá un límite total de 1.200.000 euros.

2.3.1.- Actuaciones sobre la envolvente térmica de edificios públicos

Las actuaciones energéticas consideradas dentro de esta medida serán aquellas que consigan una reducción del consumo de energía eléctrica y/o de combustible en los edificios públicos existentes a través de actuaciones que incidan sobre la fachada, la cubierta o la estructura del edificio o su envolvente térmica, tales como cambio de ventanas, aislamientos térmicos, etc.

2.3.2.- Instalaciones de climatización y/o producción de agua caliente sanitaria (ACS).

Las actuaciones energéticas consideradas dentro de esta medida serán aquellas que consigan una reducción del consumo de energía eléctrica y/o de combustible en las instalaciones de calefacción, refrigeración y/o producción de ACS en su renovación





murritzeta lortzen dutenak.

2.3.3.- Barne-argiztapeneko instalazioak.

Neurri honen barruan sartzen diren energiaren arloko jarduketak izango dira udal eraikin eta instalazioetako barne-argiztapenean energia elektrikoaren kontsumoa murritzeta lortzen dutenak; kanpoan geratuko dira larrialdietako edo segurtasuneko argien instalazioetan egindako hobekuntzak.

Diruz lagundu ahal izango dira monitorizazio energetikoko sistemak ere, hau da, eraikin publiko batean energia-kontsumoa urrunetik monitorizatzeko instalatzen diren sistema iraunkorrak. Sistema horiek erregistratutako kontsumo-datuak automatikoki biltzeko aukera emango dute, baita haiek ebaluatzekoa eta sistema hobetzeko moldatuz joango den kudeaketa egitekoa ere.

Diruz lagun daitezkeen monitorizazio energetikoko gastuen artean ez dira sartuko ekipamendu eramangarriak eskuratzeari dagozkionak.

2.3.4.- Kanpoko argiztapen publikoaren gaineko jarduketak

Neurri honen barruan sartzen diren energiaren arloko jarduketak izango dira kanpoko argiztapen publikoan energia elektrikoaren kontsumoa murritzeta lortzen dutenak, A motako energia-kalifikazioa dutenak, agiriaren bidez justifikatua. Era berean, Kanpoko Argiztapen Instalazioen Energia Efizientziari buruzko Erregelamenduan eta haren jarraibide tekniko osagarrietan (1890/2008 Errege Dekretua) jasotako preskripzioak bete beharko dituzte, eta berariaz adierazi beharko da hori eskabidean.

Diruz lagundu ahal izango dira kanpoko argiztapen publikorako monitorizazio energetikoko sistemak ere, hau da, energia-kontsumoa urrunetik monitorizatzeko instalatzen diren sistema iraunkorrak. Sistema horiek landa-ekipamenduetan erregistratutako kontsumo-datuak automatikoki biltzeko aukera emango dute, baita haiek ebaluatzekoa eta sistema hobetzeko moldatuz joango den kudeaketa egitekoa ere.

o sustitución.

2.3.3.- Instalaciones de iluminación interior

Las actuaciones energéticas consideradas dentro de esta medida serán aquellas que consigan una reducción del consumo de energía eléctrica en la iluminación interior de los edificios e instalaciones municipales existentes, excluyendo las mejoras en instalaciones de alumbrado de emergencia o alumbrado de seguridad.

Los sistemas de monitorización energética también serán subvencionables y se corresponderán con la instalación de un sistema permanente en un edificio público existente para la monitorización remota de consumos energéticos. Este sistema permitirá la recogida automática de los datos de consumo registrados, su evaluación y gestión adaptativa hacia la mejora del sistema.

No serán subvencionables los gastos de monitorización energética en la parte de adquisición de equipos portátiles.

2.3.4.- Actuaciones en el alumbrado público exterior

Las actuaciones energéticas consideradas dentro de esta medida serán aquellas que consigan una reducción del consumo de energía eléctrica en alumbrado público exterior, con una calificación energética, justificada documentalmente, de clase A. Asimismo, deberán cumplir con las prescripciones del Reglamento de Eficiencia Energética en Instalaciones de Alumbrado Exterior y sus instrucciones técnicas complementarias (Real Decreto 1890/2008), declarando expresamente dicho cumplimiento en la solicitud.

Los sistemas de monitorización energética en el alumbrado público exterior también serán subvencionables y se corresponderán con la instalación de un sistema permanente para la monitorización remota de consumos energéticos. Este sistema permitirá la recogida automática de los datos de consumo registrados en los equipos de campo, su evaluación y gestión adaptativa hacia la mejora del sistema.





Diruz lagun daitezkeen monitorizazio energetikoko gastuen artean ez dira sartuko ekipamendu eramangarriak eskuratzeari dagozkionak.

2.4.- Ibilgailuak

Dirulaguntzen lerro horrek 100.000 euroko muga izango du guztira.

Ibilgailu elektrikoak eta ibilgailu hibrido entxufagarriak erosteko eta karga-zutainak instalatzeko laguntzak emango dira.

Ibilgailuak udalarenak izango dira, eta utilitarioak, zama-ibilgailuak, garbiketakoak eta abar izan daitezke.

Laguntza bakarra emango da udal bakoitzeko. Erositako ibilgailuak txatarrera eramango den beste bat ordeztu beharko du.

Bestalde, karga-zutaina gutxienez karga erdiazkarrekoa izango da, 22 kW-ekoa, eta ITC-BT 52 araua beteko du.

Batera eskatu ahal izango dira, proiektu bakarreko jarduketa gisa, ibilgailua eta karga-zutaina.

Ez dira diruz lagun daitezkeen jardueratzat hartuko honako hauek:

- Inbertsioaren ondorioz egiten diren finantza-gastuak, langileria propioarenak eta lurrak erostearenak edo errentamenduan hartzearenak.
- Erabilitako ekipamenduetan eginiko inbertsioak.
- Ordenagailu eramangarriak eta beste IKT ekipamendu batzuk edo komunikazio-ekipamendu mugikor batzuk eskuratzeko.
- Oro har, argi eta garbi definituta ez dauden gastu guztiak, edo deialdi honetan jasotako energiaren arloko helburuak lortzea xede ez dutenak.

Diruz lagun daitezkeen kostutzat jotzen da fakturaturako ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeko ordaindutako balio erantsiaren zerga (BEZa). Ez da diruz lagunduko erakunde eskatzaileak zenbateko hori berreskuratzeko edo konpentsazioa jasotzeko aukera badu.

No serán subvencionables los gastos de monitorización energética en la parte de adquisición de equipos portátiles.

2.4.- Vehículos

Esta línea subvencional tendrá un límite total de 100.000 euros.

Se concederán ayudas para la adquisición de vehículos eléctricos e híbridos enchufables e instalación de postes de recarga.

Los vehículos pertenecerán al parque móvil del ayuntamiento y podrán ser utilitarios, de carga, de limpieza, etc.

Se concederá una única ayuda por Ayuntamiento. El vehículo adquirido deberá sustituir a otro que será achatarado.

Por su parte, el poste de recarga será como mínimo de carga semirápida, 22 kW y cumplirá la norma ITC-BT 52.

Se podrán solicitar de forma conjunta, como actuaciones de proyecto único, el vehículo y el poste de recarga.

No se consideran como costes subvencionables:

- Los gastos financieros consecuencia de la inversión, los de personal propio y los de adquisición o arrendamiento de terrenos.
- Las inversiones en equipos usados.
- La adquisición de ordenadores portátiles y otros equipos TIC o de comunicación móviles.
- En general, todos aquellos gastos que no estén claramente definidos o que no tengan por finalidad directa la consecución de los objetivos energéticos de esta convocatoria.

Sí se considera un coste subvencionable el impuesto de valor añadido (I.V.A.) satisfecho por la adquisición de bienes o servicios facturados. No será subvencionable en el caso de que sea susceptible de recuperación o compensación por parte de la entidad solicitante.





3. oinarria. *Kanpo geratzen diren jarduketak.*

1. Partikularrei erabilera pribaturako laga zaizkien edo lagatzea aurrez ikusten den ondasun publikoetan edo titulartasun pribatuko ondasunetan egin nahi diren obrak.
2. Energia-zerbitzuen enpresaren figuraren bidez enpresei adjudikatutako kontratuetan jasotzen diren proiektuak edo jarduketa-sektoreak.
3. Energia-kontsumoa murriztea edo energia berriztagarriak sortzea argi eta garbi ez dakarten jarduketak.
4. 2024ko urtarrilaren 1a baino lehen gauzatutako jarduketak.
5. 3.000 eurotik beherako inbertsioa (BEZik gabe) dakarten eskabideak.

4. oinarria. *Erakunde onuradunak (baldintza orokorrak eta espezifikoak).*

Bizkaiko Lurralde Historikoko udal eta mankomunitateak, baldin eta klima-aldaketarekin eta energiarekin lotutako alderdiak kudeatzen badituzte.

Erakunde onuradunek egunean eduki behar dituzte zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Erakunde onuradunak ezin dira egon zigor eta administrazioaren arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko zigortuta, ezta laguntzak jasotzeko ezgaitzen dituen legezko debekuetan sartuta ere. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuaren arabera, sexua dela-eta inor baztertzeagatik gertatutakoak ere sartzen dira debeku horietan. Hori guztia eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik bete behar dute.

Ezin izango dira dirulaguntzaren onuradun izan

Base 3. *Actuaciones excluidas.*

1. Las obras a realizar en bienes públicos cedidos o que se prevea ceder a particulares para uso privado, o en bienes de titularidad privada.
2. Los proyectos o sectores de actuación contemplados en los contratos adjudicados a empresas bajo la figura de Empresas de Servicios Energéticos.
3. Las actuaciones que claramente no conlleven una reducción del consumo energético o la generación de energías renovables.
4. Las actuaciones ejecutadas antes del 1 de enero de 2024.
5. Solicitudes que supongan una inversión inferior a 3.000 euros (IVA no incluido).

Base 4. *Entidades beneficiarias (requisitos generales y específicos).*

Los ayuntamientos y las mancomunidades que gestionen aspectos relacionados con el cambio climático y la energía del Territorio Histórico de Bizkaia.

Las entidades beneficiarias deberán estar al corriente en sus obligaciones tributarias, así como con la Seguridad Social.

Las entidades beneficiarias, deberán no encontrarse sancionadas penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni se hallarán incursas en prohibición legal alguna que las inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo, de conformidad con lo dispuesto en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, antes de la finalización del plazo de solicitud.

No podrán ser beneficiarias de la subvención las





Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuaren II. tituluan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Legean ezarritako betebeharrak betetzen ez dituzten erakundeak.

5. oinarria. Elkarreragingarritasuna.

